




2024an 3.438 enpresa sortu ziren EAEn

EAEn sortutako enpresak

Urte bakoitzeko urtariletik abendura bitartean




Iturria: INE.

INEk argitaratutako informazioaren arabera, 2024an 3.438 enpresa eratu ziren guztira EAEn, hots, 2023an baino %9,6 gehiago. Iazkoa 2014tik lortu den baliorik handiena da. Halaber, aipatu behar da enpresa horiek sortzeko ordaindutako kapitala 210 milioi eurotik gorakoa izan zela.

Aireko trafikoa gutxitu zen 2025eko hasieran

Aireportuetatik bidaiatu duten pertsonak

Urte bakoitzeko urtarila. Milakoak



Iturria: AENA.

Aurtengo lehen hilabetea 400.000 bidaiari baino gehiago pasa ziren EAEko aireportuetatik. Kopuru hori aurreko urteko hilabetea jasotakoa baino %2,4 txikiagoa da, baina urtaril batean inoiz izan den bigarren erregistrorik handiena da.



EAEko merkataritzaren salmentak %0,1 hazi ziren

Merkataritzako indizea

Urte bakoitzeko urtariletik abendura. Indizea



Iturria: Eustat.


EAEko merkataritzako salmentak %0,1 handitu ziren 2024 osoan.

Emaitza oso positiboa izan zen bai ibilgailu motordunen salmenta eta konponketaren sektorean (%8,8) bai txikizkako merkataritzan (%2,9). Handizkako merkataritzan, ordea, salmentak %2,9 jaitsi ziren 2024. urtean.

EAEko KPIa %3,5ean kokatu zen urtarrilean

EAEko kontsumo prezioen indizea

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

INEk berriki argitaratutako datuen arabera, **urtarrileko KPIren urteko aldakuntza-tasa %3,5ekoa izan zen Euskadin, aurreko hilekoa baino hamarren bat txikiagoa**. Birlakaera hori erregaien garestitzearen eta elektrizitatearen prezioen igoeraren isla da. Era berean, azpiko inflazioa %2,9koa izan zen, inflazio orokorrarekiko diferentziala sei hamarren utziz.